

IBAI ETA IZAR DINOSAURIOEN LURRALDEAN



Baziren behin anai arreba batzuk Izar eta Ibai deitzen zirenak. Bergaran bizi ziren, Usondo parkearen ondoan. Izarrek 11 urte zituen eta Ibaiek 10.

Izar ausarta, bidaizalea eta oso lagun ona zen, eta Ibai indartsua, azkarra eta lotsatia. Izar eta Ibaien ametsa dinosaurioen lurralde batera joatea zen, baina gurasoek ez zieten uzten.



Baina handik egun batzuetara gurasoek esan zieten:

- Ibai! Izar! Etorri! Gauzatxo bat esan behar dizuegu! - esan zuen amak.
- Aitak eta biok hitz egin eta gero adostu dugu Ibairi bakarrik joaten uztea .
- Gure ustez dinosaurioen irteerara joateko aproposena mutila izan behar da, eta gure kasuan, Ibai da - esan zuten gurasoek.
- Ez! Nik ere dinosaurioen lurraldera joatea nahi dut! - esan zuen Izarrek pena handiz.
- Jo! Nik Izarrekin joatea nahi dut! Ez da bidezkoa!

Biak kexatzen jarraitu zuten, kexatu eta kexatu. Azkenean, hamar egun geroago, biei uztea erabaki zuten.

Egun batzuetara Ibairi denboraren makina bat sortzea bururatu zitzaion dinosaurioen lurraldera joateko:

- Zerbait bururatu zait Izar, denboraren makina bat sortuko dugu dinosaurioen lurraldera joateko. - esan zuen Ibaiek.
- Bai! Ideia zoragarria izan duzu! - esan zuen Izarrek.



Denboraren makina egitea lortu zuten eta handik ordu batzuetara dinosaurioen lurraldera joan ziren. Arazo txiki batzuk izan zituzten, dinosaurioak Ibairi atzetik korrika hasi ziren eta Izarrek ogi zati bat lurrera bota behar izan zuen Ibai salbatzeko. Korrika atera ziren, onik eta salbu. Denboraren makinara itzuli ziren etxera joateko. Etxean ohiko bizitzarekin jarraitu zuten eta gurasoak, Ibai eta Izarrek denak batera afaldu zuten: makarroiak eta pizza.



Eta denak pozik bukatu zuten dinosaurioen lurraldean egonda.

**Kalabazan edo etxean,
baina atera dadila
dinosaurioen lurraldean!!!**